

# **Poznan-eko euskal lektoretza**

*Adam Zawiszewski*

*Adam Mickiewicz unibertsitateak tradizio luzea dauka hizkuntzen irakaskuntzan eta, beroni dagokionez, onenatarikotzat jo izan da beti Polonian; izan ere, ikasleek anitz aukera daukate mintzairarik ezohikoenak ere ikasteko. Hala ere, euskara ez da inoiz eskainia izan, ez baitzegoen gai hau emateko aukerarik, ezta horretarako gauza zen irakaslerik ere. Baina, gaur egun badago euskara ikasteko aukerarik. Adam Zawiszewski euskara-irakasleak eskola horien berri eskainiko digu segidan.*

## **Sarrera**

Hasteko, ikus dezagun nolakoa izan den Poznan-eko euskal lektoretzaren historia; horrek hurbil baitiezaiokie irakurleari euskararen hemengo egoera eta, bidenabar, zenbait gauza argitu ere bai.

Goian azalduko egoerak luze iraun zuen harik eta Poznan probintziako gobernua eta Bizkaiko Foru Aldundia harremanetan jarri ziren arte. Honen “fruitu” 1992an bi aldeek sinatutako hitzarmena izan zen eta bertan, ekonomi gai askoren artean, puntu batek zioen Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartuko zuela hemen euskal lektoretza sortzea; ordudani, Aldundiaren bitartez, *Aurten bai* fundazioa arduratu zen hona lektoreak bidaltzeaz eta ikasturteak antolatzeaz. Horrela, bada, Jokin Larrinaga etorri zen lehenengoz, gero Eguzkiñe Arbulu eta Maribi Zubiaga izan ziren lektore eta orain neuk ematen ditut euskarako klaseak.

Ikasleen profilarren berri eman baino lehen, zilegi litzateke, nik uste, euskarak ikasketa-programan duen lekua aipatzea.

Hasieran, Europako hizkuntzarik zaharrena ikasketa-programan sartuta bazegoen ere, badirudi sasi-ikasgaitzat hartzen zela. Unibertsitateak begi onez ikusten zuen, hori bai, baina, gauza berria zenez, ez zeukan, antza, behar besteko adorerik euskararen egoera behin betiko erabakitzeko.

Aldaketak 1995ean iritsi ziren eta ordutik hona euskal lektoreak besteek bezalako eskubideak ditu; euskara era ofizialean dago sartuta ikasketetan eta beste hizkuntza guztiak bezala tratatzen da.

Hizkuntza preindoeuropear hau, hortaz, gaztelaniaren filologian ematen da aurrenik, asignatura moduan, eta ikasleek bost kurtsotan dute hizkuntza hau hautagai. Normalean, gaztelaniaz aparte, penintsula iberikoan hitz

egiten den beste mintzaira bat aukeratu behar dute (2. kurtsotik aurrera) eta portugesa eta katalunieraren artean euskara ere badute aukeran.

## **Ikasleen profila**

Ikasleak 19-24 urte bitartekoak izaten dira baina helduagorik ere bada haien artean. Izan ere, nahi duen orori ahalbideratzen zaio euskara ikastea, hau da: Adam Mickiewicz unibertsitateko ikasle guztiek dute ikasteko posibilitatea, nahi izanez gero. Gehienak, zalantzarik gabe gaztelania ikasten dihardutenak dira baina bestelako ikasketak burutzen ari direnak ere etortzen dira. Horrela, adibidez, italiara-ikasleak daude, eta frantses filologoak ere bai. Behin medikuntza ikasle bat eta ingeles-irakasle bat etorri ziren. Aurten Historia saileko ikasle bat ere badago, eta, arraroa iruditu arren, suomiera (finlandiera) ikasten duen bat ere bai. Ikasle-kopuruari dagokionez, gora egin duela azken urteotan agerian dago. Hasieran, 13-14k izena eman bazuten, orain zenbaki hori bikoiztu egin da; aurten 34 ikasle daude apuntatuta. Guztiak bost taldetan banatuta daude eta multzo bakoitzari hiru klase-ordu ematen zaizkio asteen. Ikasturterik oparoena, zalantza barik, 1996/97 izan zen. Orduan 47 pertsonak jardun zuten euskara ikasten. Hala ere, hizkuntzaren zailtasuna zela medio edo, askok utzi zioten ikasteari.

Ikusten denez, ikasleen profila nahiko zabala da; batzuek tamalez, ez dakite ezer askorik Euskal Herriari buruz eta euskarari dagokionez, are gutxiago. Jakin badakite non hitz egiten den, baina xehetasun gehiago emateko ez dira gai. Horrek ez du esan nahi euskararen eta Euskadiren gainean zer-bait dakienik ez dagoenik; aitzitik beste batzuek badaukate horren berri. Eta, badira beraien artean Euskaldunen lurra zapaldu dutenak eta hauxe izaten da askotan mintzagaia lehenengo klaseetan, hots, eurek kontatzen dute zer ikusi duten, zer iruditu zaien etab. Haien inpresio gehienak onak dira; esate baterako, gustatzen zaizkien leku askoren artean, Donostia, Iruñea eta Bilbo eta kostaldeko herri txikiak aipatzen dituzte.

Arestian esan dudan bezala, pertsona gazteek ikaste dute euskara. Eta gehienak neskak dira. Orain, adibidez, 6 mutil baino ez daude; dena den, ezin da esan hori ezohikoa denik. Filologia mutil gutxi ikastea txit arrunta baita hemen.

Orokorrean, euskara ikasten hasten direnek gutxienez beste hizkuntza bat badakite, batzuetan bi ere bai. Pentsatzekoa denez, ingelesa doa dakizkiten hizkuntza guztien aurretik, gero frantsesa edo alemana. Eta, esan beharra dago oso lagungarria dela hori hemen euskara ikasten dutenentzat, nahiz eta euskara bera guztiz bestelakoa izan. Jakina, kosta egiten zaie batzuetan zenbait mekanismo ulertzea, baina mintzaira arrotzak estudiatzeko ohitura daukatenez beste batzuei baino errazago egiten zaie.

Seguru asko, euskaldun askok galdetzen diote beren buruari nondik datorkien hainbat Poloniarri euskara ikasteko gogo. Fenomeno hau azaltzea ez zait batere erraz egiten, arrazoi asko izan daitezke eta.

Lehenik, goian aipatu dudan bezala, euskara ikasketa-programan dago eta hautagai denez, asko jakingurak bultzatzen ditu hizkuntza hau aukeratzera. Gero, euskara-ikasleei bekak eskaintzen zaizkie, hots, urtean

bitan Zornotzako barnetegira joateko eta bertan ikastaroetan parte hartzeko aukera daukate. Horrela, bada, urtarrilean lauzpabost astetarako joaten dira Zornotzara eta irailean aste bi igaro ohi dituzte barnetegian. Ez litzateke aipatzeke utzi behar egonaldi guztiak *Aurten Bai* fundazioak antolatzen dituela, baita ondo antolatu ere. Horrek guztiak, ezin uka, eragin handia izaten du ikasleek erabakiak hartzean, guztiok baitakigu lengoia ezezagun bat ikastean bertara joatea dela onena; okasio hori dateke, beraz, erabaki askoren oinarria. Azkenik, euskararen eta Euskal Herriaren berri badaukatenak aitaturko nituzke, haiek dakitena osotu edo sakondu nahi dutelako apuntatzen baitira. Bertan egon direnak eta hizkuntza arraro hau ezagutu nahi dutenak ere ez lirateke baztertu beharko, gutxi izanda ere, egon badaudela argi dago eta.

## **Metodologia**

Euskararen arrakastaren arrazoietakoa bat metodologia izan daiteke, nire ustez. Hemen, hizkuntza bera ikasteaz gain, ikasleek kultura, literatura eta ohitura ezagutzeko ere jotzen da helburutzat. Horregatik, hasierahasieratik euskara hutsean egiten zaie, nahiz eta haiek gauza asko ulertu ez. Arraroa badirudi ere, metodo honek emaitza ezin hobekak ekartzen ditu, ikasleen artean EGA eskuratzeko urratsean dagoen heska bat frogagarria izanik. Azken hau ez da salbuespen bakarra, euskaraz ederto mintzatzen diren beste hamar bat ikasle baitaude. Materialari dagokionez, normalean HABEko karpetak erabili izan ditut, Euskalduntzearen A/B mailarako ikasgaiak kasu. Bestalde, goi-urratsetan mintzamina, entzumenaren, irakurmenaren eta abarrezkoak erabili ohi ditut. Horretaz aparte, euskal idazleen lanez ere baliatzen naiz, hala nola Bernardo Atxagaren “Obabakoak”, Joseba Sarrionaindiaren “Atabala eta euria” eta Arantxa Iturberen “Ezer baino lehen” ipuin bildumaz. Horretaz gain ikasleek euskarak edo Euskal Herriari buruz irakurriko badute, unibertsitateko liburuetan aurki dezakete interesatzen zaiena. Idazti frankoren artean Euskal Herriko albumak eta gramatika-liburuak daude, baita literatur lan asko ere, esaterako Bernat Etxeparearen “Linguae Vasconum Primitiae” edo Bernardo Atxagaren “Obabakoak”. Metodologiari gagozkioz, euskara irakasteko “Larramendi” programa derrigorrez aipatu behar da, orain klase gehienetan huraxe darabilten eta. Programa honek abantaila asko ditu, klaseak prestatzeko erraztasuna, materialaren aniztasuna eta beronen gaurkotetasuna, besteak beste. Entzumenaren lanketan euskal musikak ere badauka bere lekua, izan ere, ikasleei biziki gustatzen zaizkie “Oskorri” edo “Hiru truku” taldeen kantak. Horrek aukera paregabeak eskaintzen dizkie ikasleei euskal musika tresnak, dantzak eta folkloreak ezagut ditzaten. Halaber, “Ikusbit” bideozintak edo euskaratuta dauden pelikulak (“Arrosaren izena” edo “Willow” adibidez) lagungarri gertatzen zaizkigu klase batzuetan. Zerrenda hau bukatzeko, “HABE” aldizkarietako artikulak ere ez nituzke alboratu nahiko, horiek ere erabiltzen baititut klaseetan osagarri gisa.

## **Zer irizten diete euskarari eta Euskal Herriari?**

Esan dudan guztia kontuan harturik, ikasleek Euskal Herriari eta euskarari buruz duten irudia nolakoa den aise asma dezake irakurleak. Lehenik, hara joaten direnean paisaiak eta, batez ere, mendiek uzten

dituzte liluratuta guztiak. Beti esan ohi dute denetik dagoela han: itsasoa, mendiak eta lautadak ere bai. Alde batetik, han daudenean, txangoak antolatzen zaizkie hiririk ezagunak ikus ditzaten; azkenekoz, adibidez, Bilboko Guggenheim museoa bisitatu zuten eta Donostiako danborrada ikustera joan ziren. Beste aldetik, normalean lagun euskaldunak egiten dituzte bertan eta maiz beraiekin igarotzen dute denbora librean. Ahal denean, euskal kultura eta ohiturak ezagutzeko, herriko jaietan hartzen dute parte (Abadiñoko “San Blas” eguna kasu) eta batzuetan sagardotegi-tara ere joaten dira. Zer esanik ez, oso gustatzen zaizkie horrelako ekitaldiak eta gustura pasatzen dute beti. Gainera barnetegian egoten direnean euskal kantak ikasten dituzte eta giro egokia egoten denean, euskaldunekin batera abesten dituzte. Era berean, asteburuetan herriko tabernetara ateratzen dira sarritan, hango gazte asko bezala, eta horrek ere laguntzen die bertako jendea hobeto ezagutzen eta euskaldunen bizimodua ulertzen. Euskal kulturaz ari naizelarik, janaria ez nuke ahaztu beharko. Euskal sukaldaritza Europako onenetariko delako esatea ez da gehiegikeria, ados daude ikasleak horretan. Han egoten direnean denetik dastatzeko okasioa dute, txipiroiak, indabak eta legatza, besteak beste. Arraro samarra egiten zaiena, agian, otorduen ordutegia izaten da, hemen ez baitugu han bezain berandu afaltzen. Gainera, hemen ez dugu normalean bazkaltzeko atsedetik egiten, han, ordea jatordua “sokratua” da.

Janari-kontuak alde batera utzita, euskarak berak ere harritzen ditu askotan ikasleak. Lehen esan dudan legez, guztiz bestelakoa da hizkuntza hau, eta nahiz eta beste bat ezagutu, zail samarra egiten zaie noizean behin. Zailtasunik gehienak hiztegian daude, txinera bezalakoa baita haientzat euskara. Aho bete hortz uzten ditu, halaber euskarak dituen sinonimoen ugaritasunak, gainera logika hutsez ezin da asmatu hitz batek zer esan nahi duen, euskarak ez baitauka beste hizkuntzaren antzik. Hiztegia dela eta, barre egiten dute askotan euskarazko zenbait berba entzunda, batez ere ergatibo kasuan. Poloniera “-ek” atzizkiak diminitiboak egiteko balio du, horrela “Michal-ek”, “Piotr-ek”, eta sail berekoek “Mikeltxo” edo “Kepatxo” esan gura dute. Euskal aditz sistemari dagokionez, NOR eta NOR-NORK sistemak nahiko errazak badira ere, NOR-NORI-NORKekin arazoak hasten dira. Ildo beretik abiatuz, ergatibo kasuak ere problemak sortzen dizkie, hango euskara-ikasleei bezala, nire ustez. Dena den, oso ikasle azkarrak dira orokorrean eta 5. kurtsoa amaitzen dutenean euskara-maila polita daukate bai hitz egiterakoan baita idazterakoan ere.

### **Ondorio-gisa**

Bukatzeko, hemen euskarak etorkizun polita daukala esango nuke, bai ikasleen aldetik begiratuz gero, baita unibertsiteatearen aldetik ere. Jatorri ezezaguneko hizkuntza hau irakasten den toki bakarra “Adam Mickiewicz” unibertsiteatea baino ez dugunez Polonia osoan, ekialdeko Europan euskal gune garrantzitsu bihur daiteke egunen batean. Azkenik, espero dezagun gaur, Europa Baturantz goazen honetan, euskara bezalako hizkuntzek ere beren tokia izatea.